

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Arriaran Muruamendiaraz

*Bergara,
Gipuzkoa
(1946)*

Aurkibidea



Biografia



Zubieta auzoan jaioa, zubi ondoko etxean. Ama Mitxegi baserrikoa zen eta aita sastrea. Bi senide ziren. Seminarioan egin zituen lehen ikasketak, fraide batekin, eta ondoren eskola publikoan ibili zen. Marrazketa klasetara ere joaten zen, iluntzetan. 13 urterekin hasi zen lanean, banku batean. 18 urterekin Ernai antzerki-taldean hasi zen. Musikagintzan ere ibilbide polita egin zuen. Umetatik gustatzen zitzaizkion musika eta kantua. Lagun Artea abesbatzan ibili zen, eta gero Ameslariak boskotea sortu zuten. Herriz herri ibili ziren bi urtean, jaialdietan kantatzen, besteak beste Ez Dok Amairukoekin. Bakarlari moduan aritu zen gero, eta Los Mansos taldeko kide batzuekin ere ibili zen (Iñaki Arriaran y Los Mansos). Akelarre erromeria taldearen sorreran ere hartu zuen parte, eta Ariznoa diskotekako orkestran jo zuen hainbat urtean. Donostian bizi da aspalditik.

Zintak

BER-363

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-11-22
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Jaiotzean Ignacio izena jarri zioten arren, beti Iñaki

- **Erref:** BER-363/002
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:27. **Bukatu:** 00:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bera jaio zenean ez zuten uzten euskarazko izenik jartzen eta Ignacio jarri zioten. Baina etxean beti Iñaki izan da eta soldadutzan bakarrik deitzen zioten Ignacio. Behin epaitegira joan zen batean izena euskaratzera joan zen lagun batekin topo egin zuen eta berak ere aldatu egin zuen.

2. Gurasoen jatorria; aita sastrea

- **Erref:** BER-363/003
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoen jatorria. Aita sastrea zen eta etxean bertan zeukan jostundegia, Zubietan. Hainbat bizileku izan ditu. Sastrearen lana. Bezeroak joaten ziren aitaren jostundegira. Erakusgaiak izaten zituen eta gero behar zuena eskatzen zuen, hasieran Gasteizko etxe batera eta gero Bilbora.

3. Umetan errekan jolasean

- **Erref:** BER-363/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Etxekoekin baino denbora gehiago pasatzen zuen lagunekin. Uda osoa errekan. Fabrikek botatako azidoarekin tripaz gora geratzen ziren arrainak batzen zituzten. Aurkitzen zituzten oholekin txabolak eta txalupak egiten zituzten.

4. Seminarioan eta eskola nazionalean ibili zen

- **Erref:** BER-363/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Seminarioan hasi zen eskolan. Han 2-3 urte egin ostean eskola nazionalean hasi zen. Maisuak. 13 urte bete berritan "Banco San Sebastian"en hasi zen lanean.

5. Etxean beti euskaraz; eskolan gaztelaniaz

- **Erref:** BER-363/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan ez zekien gaztelaniaz, baina laster ikasi zuen fraideetara joan zenean. Fraideetako batek mania ziola eta gaizki pasatu zuela kontatzen du. Etxean beti euskaraz. Logroñon soldadu zegoela, behin aita joan zitzaion eta lagunekin batera bazkaltzera joan ziren. Lagunekin gaztelaniaz egiten zien arren, aitari ezin zion gaztelaniaz egin.

6. Zubieta auzoko lagunaren artean euskaraz beti

- **Erref:** BER-363/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:42. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Zubieta auzoan lagunartean euskaraz hitz egiten zuten. Lagun bat Errioxatik etorri zen eta hari gaztelaniaz egiten zioten hasieran, baina gerora euskara ulertzen hasi zen. Herriguneko umeek gaztelaniaz egiten zuten. Eskoletan gaztelaniaz. Eskola nazionalean denbora gutxi egin zuen, 13 urterekin lanean hasi zen eta.

7. 13 urterekin hasi zen lanean

- **Erref:** BER-363/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Banketxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

13 urterekin "Banco San Sebastián"en hasi zen lanean. Legez ezin zen lanik egin 14 urtera arte. Horregatik kaxatik zuzenean ordaintzen zioten. 14 urte

bete eta ofizialki kontratatu zutenean, disgustua hartu zuen nominarekin diru gutxiago jasotzen zuelako.

8. Musikarako zaletasuna; Seminarioko tuna

- **Erref:** BER-363/012
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Beti gustatu izan zaio musika. Amak oso ondo abesten zuen. Irratian entzuten zituen abestiak ikasi egiten zituen. 16 urte zituela, Seminarioan zegoen tuna batean sartu zen, gitarra jotzen ikastearren. Hango irakaslearen bitartez gitarra bat ekarri zuten Bilbotik eta etxean jarduten zuen jotzen eta kantuan.

9. 18 urterekin Lagun Artea abesbatzan sartu zen

- **Erref:** BER-363/013
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:16:01. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

18 urterekin San Pedro parrokiako on Nikomedes apaizak eramaten zuen Lagun Artea abesbatzan sartu zen. Parrokian egiten zituzten entseguak. Garai hartan asko abesten zen tabernetan; kuadrillen arteko lehia.

10. Ernai antzerki taldearekin lehen aldiz eszenatokira

- **Erref:** BER-363/014
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:37. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

18-19 urte zituela, Ernai antzerki taldea sortu zen eta parte hartzera animatu zuten. Bera oso lotsatia zen, baina entseguetan hasi zen, sekula ez zutela proiektua aurrera eramango pentsatuz. 1965ean taularatu zuten lehen obra. Eszenatokira irten zenean lotsa joan zitzaion eta gerora urte askoan ibili da eszenatokietan.

11. Ernai antzerki taldea; sortzaileak, obrak...

- **Erref:** BER-363/015

- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Txomin Amasorrainek eta Juste Amenabarrek sortu zuten Ernai antzerki taldea eta beraiek egiten zuten zuzendari eta "apuntadore" lana. Obrak euskaratu ere egiten zituen Txominek. Gerra aurretik antzerkigintzan ibiliak ziren. Labaienek euskaratutako `Malentxo alargun´ izan zen lehen obra. Obra taularatu eta handik gutxira soldadutzara joan zen bera. Jakin zuten Ormaiztegin bazela antzerki hori egiten ari zen talde bat eta hango mutil bat ekarri zuten bere papera betetzeko. Soldadutzatik itzulitakoan `Ordu eroslea´ antzezlanean paper txiki bat egin zuen.

12. Ameslariak taldearen sorrera

- **Erref:** BER-363/017
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean, herriko batzuk zain zituen musika talde bat sortzeko. Gitarra jotzen zuelako proposatu omen zioten taldean sartzea. Justo eta Jabier Idigoras lehengusuek, Jose Inzak eta berak osatzen zuten taldea hasieran. Gero Inzak utzi egin zuen taldea eta bi urretxuar sartu ziren: Ramon Arbizu eta Jose Luis Mendia. `Ameslariak´ izena Justo Idigorasek jarritakoa zela uste du.

13. Ameslariak taldea "Radio juventud"ek antolatutako lehiaketan

- **Erref:** BER-363/018
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>1965-1966 inguruan jada hasita zegoen Ez dok Amairu taldearen mugimendua eta sarritan kointziditzen zuten haiekin han edo hemen. Ameslariak taldean euskaraz abesten zuten, ordurako jada euskararen eta kulturaren mugimendua hasita zegoen eta. Eibarko "Radio juventud"ek antolatutako lehiaketara aurkeztu ziren 1968an eta bigarren geratu ziren. Pasaiaiko Oskarbi taldeak irabazi zuen eta hirugarren Bergarako Urretxindorrek taldea geratu zen. Hurrengo urtean berriz aurkeztu ziren eta berriz bigarren egin zuten. Unai bikoteak irabazi zuen.</p>

14. Modako kantak abesten zituzten; Letamendiaren hitzak

- **Erref:** BER-363/019
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ez du gogoan Ameslariak taldeak non eman zuen lehenengo kontzertua. Modako abestiak euskaratzen zituzten. Lehenengo diskorako Angiozarko apaiza zen Letamendiak euskaratu zizkien kantak. Bigarren diskoan beraiek sortutako bi kanta sartu zituzten eta orduan ere Letamendiak egin zituen hitzak. Taldea desegin egin zen gero.

15. 60-70eko musika taldeen loraldia

- **Erref:** BER-363/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

60-70eko hamarkadan musika talde asko sortu zen eta asko animatu ziren abestera: Urretxindorrek, Itxaropena, Estitxu, Maite Idirin...

16. Ameslariak, ahots taldea

- **Erref:** BER-363/021
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Ameslariak taldean ahotsak zuten garrantzia eta bere gitarra besterik ez zuten laguntzeko. Ilobari "O gu hemen" kanta gustatzen zaiola aipatzen du. Bi urte iraun zituen taldeak, baina kontzertu asko eman zituzten. Jaialdi asko egiten ziren. Diru gutxi irabazten zuten, baina giroa eta afizioa ziren garrantzitsuenak.

17. Ameslariak; bi disko grabatu zituzten Madrilen

- **Erref:** BER-363/022
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:42:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Xabier Gereño bilbotarraren Cinsa diskoetxearekin argitaratu zituzten diskoak. Euskal idazlea zen Gereño, oso euskaltzalea. Euskal afariak ere antolatzen zituen. Diskoak Madrilen grabatu zituzten Fonogram-en. Bigarren diskoa grabatzera joan zirenean, Nino Bravorekin topo egin zuten. Lehenengo diskorako Zarauzko Naia orkestraren laguntza izan zuten. Imanol Urbieta zegoen bertan. Bigarren diskoan Ariznoa dantzalekuan bateria jotzen zuen Felipe Vitoria arrasatearrak eta Julian del Rio gitarra-jotzaile zumarragarriak lagundu zieten.

18. Kanten aukeraketa; Loiola irratirako grabaketak

- **Erref:** BER-363/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:42:24. **Bukatu:** 00:46:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Kantuen aukeraketa denen artean egiten zuten. Justo Idigoras zen Ameslariak taldeko arima. Irratitik hartzen zituzten ideiak. 'Oh sinner man' ('O gu hemen') kanta atera nahi zuten eta Loiola irratikoei eskatu zieten kanta hori jartzeko, beraiek magnetofoiarekin grabatu ahal izateko. Loiola irratiko Joxe Mari Iriondorekin harremana zuten, beraien kanta grabatzera etortzen zelako magnetofoi hartuta, gero irratan botatzeko. Non grabatzen zuten.

19. Entseguak Konbenio kalean, elizaren lokaletan

- **Erref:** BER-363/024
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:46:12. **Bukatu:** 00:47:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Ameslariak taldekoek Konbenio kalean egiten zituzten entseguak. Pol-pol taberna zegoen behean, goian Kasinoa eta gainean elizarenak ziren hainbat gela ("Juventudes Parroquiales"). Kultura arloko ekintzak egiten ziren han: bilerak, Ernai antzerki taldearen entseguak...

20. Euskarazko hitzak grabatzeko, baimena behar

- **Erref:** BER-363/026
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:47:49. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Abestien hitzak, grabatzeko baldin baziren, "Información y Turismo"ra bidali behar izaten ziren, baimena lortzeko. Bakarka atera zuen diskorako zazpi letra bidali zituen; bost onartu zizkioten eta bi kanpoan utzi.

21. Arrasateko lehiaketa eta bakarkako diskoaren grabaketa

- **Erref:** BER-363/027
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:48:43. **Bukatu:** 00:54:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

1970ean Arrasateko "Noche de promesas" lehiaketan apuntatu zuten lagunak. "Canción testimonio" sailean Benito Lertxudiren kanta bat eta berak sortutako beste bat abestu zituen eta sari bat irabazi zuen. Miguel Rios ekarri zuten sariak ematera. Orduan, Donostian estudioa zeukan Iñaki Beobidek disko bat grabatzea proposatu zion. 1972an kaleratu zuen bakarkako diskoa, bere lau abestirekin. Grabaketaren inguruko kontuak.

22. Bakarkako diskoan grabatutako kanten inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-363/028
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:54:03. **Bukatu:** 00:58:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bakarkako diskoan grabatu zituen kanten inguruko azalpenak. `Poxpoliña begietan´; Uberako apaiz izan zen Azurmendirenak ziren hitzak. `Jai jai´ (`Behin batian Loiolan´). Hitzak jada musikatuta zeuden lehendik, baina berak ez zekien. Handik zazpi urtera Egan taldeak beste bertsio bat atera zuen eta izugarrizko arrakasta izan zuten. `Mutikotxo´ kantaren hitzak lehengusinarekin semeak egin zituen. Laugarren kanta `Basatxoritxu´.

23. Los Mansos taldearekin batu zenekoa

- **Erref:** BER-363/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:58:11. **Bukatu:** 00:59:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

1972an atera zuen diskoan orkestraren musika zegoen atzean. Zuzeneko kantaldietarako ere orkestra bat behar zuela pentsatu zuen eta jada utzita zeuden Los Mansos taldekoekin elkartu zen. Lau urtez jardun zuten elkarrekin.

24. Akelarre taldearen sorrera

- **Erref:** BER-363/030
- **Iraupena:** 0:06:01. **Hasi:** 00:59:57. **Bukatu:** 01:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

Los Mansos taldearekin bat egin eta Akelarre taldea sortu zuten. Musikari eta abeslari asko pasatu da bertatik. Xabier Madina izan zen bere ondorengo abeslaria eta gero Anje Duhalde. Xabier Madinaren inguruko kontuak. Erromerietako taldea zen eta, ordu asko jo behar zituztenez, euskaraz eta gaztelaniaz abesten zuten. Hasierako partaideak: Juan Luis Ibarzabal, Ramon Aranzasti, Ramon Pia, Jose Camprono, Jose Antonio Ruiz eta bera. Beretzat martxa handiegia zenez, hiru urte egin ostean utzi egin zuen eta Ariznoa dantzalekuko taldera pasa zen.

25. `Kikio´rekin Parisera eta beste hainbat lekutara

- **Erref:** BER-363/032
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Garai batean Euskal Telebistan Egan taldearen inguruko saio batzuk egin zituzten eta saio bakoitzean gonbidatuak egoten ziren. Behin bera eta Luis Larrañaga `Kikio´ joan ziren. Hark txirula jotzen zuen eta asko ibili ziren elkarrekin. 1976an, Akelarre utzi eta gutxira, Akelarre taldeak kontzertu luze bat zuen Parisen eta haiekin joan ziren. Melillan eta Bartzelonan ere jo zuten.

26. Ariznoa dantzalekuko orkestran

- **Erref:** BER-363/033
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:10:19. **Bukatu:** 01:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

Zazpi urte egin zituen Ariznoa dantzalekuko orkestran. Bertako kideak: Felipe Vitoria bateria-jotzailea, Eusebio Gomez, Urtubai eta Geoncio tronpetistak, Sagastume soinu-jotzailea. Jose Antonio Villar zen abeslaria bera sartu zenean, baina berehala utzi zuen. Arzinoako giroa; inguru guztietako jendea joaten zen. Dantzan egiteko musika jotzen zuten eta erreperitorio gehiena gaztelaniaz zen. 37 urterako ibilbide luzea egin zuen musikan eta utzi egin zuen.

27. Ernai antzerki taldearen lehen emanaldia Bergaran

- **Erref:** BER-363/035
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:15:13. **Bukatu:** 01:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Jose Alvarezek egiten zituen arotz lanak Ernai antzerki taldean. Lehenengo antzezlanak Bergarako "Salón Novedades"en egin zuten eta hurrengoak Eibarren izan zela uste du. Gero soldadutzara joan behar izan zen.

28. Entsegu ofizialaren ostean tabernetako entsegura

- **Erref:** BER-363/036
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:16:20. **Bukatu:** 01:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txomin Amasorrain nolakoa zen. Urretxindorrek taldekoekin harremana zuen, Altos Hornosekoak zirelako. Beraiek ezagutzen zituzten Urretxindorrek taldekoak, baina ez zuten harreman berezirik. Behin Elorrion batera abestu zuten. Gotzon Bikuñarekin Ernai antzerki taldean kointziditu zuen. "Juventudes Parroquiales"en lokalean egiten zituzten entseguak, Konbenio kalean. Amaitutakoan, txikiteora. Tabernetan entseatzen zutela dio. Txominek edaten zuen pattarra: Gainjantzi beltz.

29. Ernai antzerki taldearen arrakasta

- **Erref:** BER-363/038
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:20:09. **Bukatu:** 01:22:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki taldea. `Malentxo alargun´ obran don Victor-en papera egin zuen. Arrakasta izan zuten; "Salón Novedades"en egin zen estreinaldian

sarrerak agortu ziren eta bigarren saio bat egin behar izan zuten. Lau obra egin zituzten guztira. Beste bi antzezlan ere prestatu zituzten, baina, politika kontuak tarteko, taldea desegin egin zen. Bera ordurako Ameslariak taldean zebilen.

30. 10-12 urterekin Migel Okinaren marrazketa klaseetara

- **Erref:** BER-363/042
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:25:42. **Bukatu:** 01:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Migel Okinaren marrazketa klaseetara joan zen bi urtez 10-12 urterekin. Iluntzeetan izaten ziren, plazan. Mutilak bakarrik. Udalak diruz lagundutako eskolak ziren. Euskaraz hitz egiten zuten bertan. Harreman handia izan zuen Okinarekin eta oporretara ere joan ziren behin elkarrekin. Simon Arrieta ezagutu zuen, baina ez zuen harremanik izan harekin.

31. Ernai antzerki taldeko kideak

- **Erref:** BER-363/045
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:31:10. **Bukatu:** 01:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

2015ean Diario Vasco egunkarian Ernai antzerki taldearen inguruan egin zuten erreportajea. Taldeko hainbat kideren izenak. `Malentxo alargun´ obran parte hartu zutenen argazkia.

32. Lagun Artea abesbatzaren eta Ameslariak taldearen argazkiak

- **Erref:** BER-363/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:33:09. **Bukatu:** 01:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Hainbat argazki erakusten ditu. Bergarako San Martin elizako on Nikomedes apaizak zuzentzen zuen Lagun Artea abesbatza. Ameslariak taldearen argazkiak. Lehenbizikoa Letamendia apaizak egindako marrazkiekin.

33. Urretxindorrak eta Ameslariak taldeetako kideak elkarrekin

- **Erref:** BER-363/051
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 01:36:31. **Bukatu:** 01:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Urretxindorrak eta Ameslariak taldeetako kideek Elorrion elkarrekin abestu zuten jaialdi batean. Orduko argazkia.

34. Argazkia: Iñaki Arriaran eta `Kikio´

- **Erref:** BER-363/052
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 01:36:55. **Bukatu:** 01:37:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Bolada batez Luis Larrañaga `Kikio´rekin batera ibili zen. Sudurrarekin jotzen zuen txirula. Argazkia erakusten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com